

2022KO URTARRILAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ETORRI GABEA: ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)

IDAZKARIA: Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

Bapateko itzulpen lanetan Lurdes Auzmendi andrea ibili da Traductores e interpretes S.A.ren enpresakoa.

Alkatea andreak: "gaur urtarrilak 27, holokaustoko biktimen nazioarteko eguna da eta bozeramaile batzordeak horrela erabakita beraien oroimenez minutu bateko isilunea egingo dugu."

1.- AURREKO AKTA. 2021-12-09.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- **KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA.** 2022EKBO0013

Proposamenarekin hasi baino lehen Alkate andreak (EAJ-PNV), hitza hartu du eta esan du konpromisuzko kredituen eranskin aldaketan, kiroldegiko kudeaketarena mahai gainean uztea proposatzen duela udal taldeko bozeramaileei ere horrela eskatuta, kiroldegiko lizitazioa egiteko oraindik bideragarritasun plana eta pleguak lantzen ari direlako.

Hori mahai gainean utzita gero, ezagutzera eman da, Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordeak ontzat emandakoa, hau da:

"GAIA.- Konpromisuzko kredituen eranskinaren aldaketa. Udalekuak

AURREKARIAK

1.- Hizkuntza Politikarako Zerbitzuak aurtengo eta hurrengo ekitaldirako udalekuzerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera ematea aurreikusi du. Gastu hori finantzatzeko 2022ko ekitaldirako kreditua badago ere, bidezkoa da 2023ko konpromiso-kreditua (45.000,00 €) Eranskinean txertatuz hornitzea.

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kreditua txertatuz: 2.023 urtea: 0230.227.335.30.07: 45.000,00 €

Bigarren.- 15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da eta G.A.Oean argitaratuko da behin-betiko onepenaren iragarkia.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak: “Udalekuena positiboa iruditzen zaigu baina azpimarratu nahi dugu hasierako helburua zein zen baina orain hizkuntza errefortzu zerbitzuan dabiltzanei zuzenduta dago eta iruditzen zaigu badagoela beste herritar talde bat, adibidez, baliabide urriak dituztenak eta zailtasunak dituztenak hizkuntzarekin. Beraz, eskatzen dugu baldintza pleguetan aniztasuna kontuan izatea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ados onartzen da. Gero udalekuetarako tasak izango ditugu onartzeko eta hori ideia hori azpimarratuko dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a) 2022KO LOINATZ JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK. **2022BOCU0002**

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA: 2022ko Loinatz Jaietarako kartel lehiaketak.

AURREKARIAK:

1.- Urteak dira Beasaingo Udalak Loinatz Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa egiten duela.

2.- Bi kartel lehiaketa egiten dira:
bat helduentzat, A Taldea, eta beste bat, 7-15 urte bitartekoentzat, B taldea.

3.- A taldeko kartel irabazleak Loinatz Jaiak iragartzen ditu eta Loinatz Jaietako esku-orriaren azala izaten da.
B taldeko kartel irabazlea Loinatz Jaietako esku-orrian eta Beasaingo Paperak aldizkarian joaten da.

4.- A taldeko irabazlea ebazteko, lehiaketak bi fase ditu. Lehenengo fasean epaimahaiak sei kartel aukeratzen ditu, bigarren fasean herritarrek, bozketaren bidez, sei kartel horietatik behin-betiko irabazlea hautatzen dute.
B taldeko kartel irabazlea epaimahaiak, zuzenean, hautatzen du.

5.- Sariak:
600€ A taldeko irabazlearentzat.
180€ B taldeko irabazlearentzat.
Dagokien PFZaren atxikipena egingo zaie.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: 2022ko Loinatz Jaietarako kartel lehiaketak egiteko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta eta Udalaren ohikoak diren hedabideak erabilia.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasun azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“

OINARRIAK

1.- Kartel-lehiaketako parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira:

- A taldea: 15 urtetik gorakoak.
- B taldea: 7-15 urte bitartekoak.

2.- Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: argazkia, collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak honako hauek izan behar dute: 42x 60 cm. edo horren proportzioko tamaina. Formatuak, nahitaez, bertikala izan behar du.

3.- A taldekoek derrigorrez lanaren bertsio digitala (JPG formatuan) aurkeztu beharko dute, nahiz eta bertsio fisikoan aurkezteko aukera ere izan.

Lanak aurkezteko bideak hauek dira:

- Bertsio digitalean: Posta elektronikoz kultura@beasain.eus helbidera bidali edo Herritarrentzako Informazio Gunean (IGunean) aurkeztu CD batean.

- Bertsio fisikoan: Herritarrentzako Informazio Gunean.

4.- Lanak 2022ko apirilaren 1erako eguerdiko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira.

5.- Lanetan egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, testu fitxategi batean hartzaillearen datu pertsonalak eta NAN dokumentuaren kopia atxikita egon beharko da.

6.-A eta B Karteletan derrigorrean “2022ko LOINATZ JAIK. Maiatzaren 27tik ekainaren 5era” esaldiak azaldu beharko du idatzita norberak egokien ikusten duen moduan.

7.- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute eta ezingo dute aldarrikapen politikorik edo sexistarik izan, ezta estereotipo sexistekin ala alkoholaren edo drogen kontsumoarekin zerikusirik duen mezurik, irudirik edo bestelako elementurik.

8.- Lanak saritzeko garaian kontuan izango diren irizpideak honako hauek dira:

- Loinatz jaiekin edota Beasaingo ohiturekin lotura izatea
- Lehiaketaren helburuarekin lotura izatea (jaiak iragartzea)
- Sormena
- Teknika
- Ideia berriak

9.- Deialdi honetako helburu diren sariak finantzatzeko Udalak 780 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako kontu sail honetan: 0240.480.334.20.03

Sariak hauek izango dira:

-A taldeko irabazleari: 600* €

-B taldeko irabazleari: 180* €

*Sariei indarreko PFEZren kenketa egingo zaie

10.- Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-mailarik ez badute.

11.- A taldeko irabazlea 2022ko Loinatz Jaien kartela eta jaietako programaren azala izango da. B taldeko irabazlearen kartela jaietako programan joango da; horrez gain, epaimahaiak aukeratzen dituen 10 finalistak aurtengo Beasain Jaietan aldizkarian argitaratuko dira.

12.- Epaimahaiak parekidea izango da eta, A eta B taldeko lanak epaituko ditu. Kideak ondorengoak izango dira:

- Mahaiburua: Herritarrek batzordeko presidentea.
- Bokalak: Irudi teknikari bat, herriko artista bat eta Urbieta Arte Plastikoak Zentroko ordezkari bat
- Idazkaria: Kultura saileko teknikari bat izango da, hitza bai baina botorik gabe.

13.- Kartel irabazleak aukeratzeko prozedura:

B taldea: Epaimahaiak 2022ko maiatzaren 5ean emango du erabakia eta apelaezina izango da.
A taldea: Bi modu egongo dira, internet bidez eta aurrez aurre bozka emanaz.

Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. Fasea: Epaimahaiak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratuko ditu.
2. Fasea: "Bozken" fasea izenekoan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:
 - Epaimahaiaren bozkek: 50 puntu
 - Herritarren bozkek: 50 puntu, papereko bozka izan edota udalaren web atari bidezkoa izan.

Epaimahaiak 2022ko maiatzaren 5ean emango du irabazlearen izena.

BIGARREN FASEA:

EPAIMAHAIAREN BOZKETA: (50 puntu). Epaimahaikide bakoitzak 12,5 puntu izango ditu, egoki irizten dion moduan banatzeko bigarren fasera pasatu diren edozein lanen artean. Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatziko den aktan jasoko da, lan bakoitzak lortutako puntuak jasoz.

HERRITARREN BOZKETA (50 puntu). Lan bakoitzak zenbaki bat eramango du eta bozkatu ahal izango da apirilaren 11tik maiatzaren 1era arte, udal web atarian, www.beasain.eus helbidean agertuko den estekaren bitartez. Herritarrek aurrez aurreko aukeraz baliatu nahiko balu, udaletxera etorri beharko du botoa ematera. Udaletxeko sarrera nagusian buzoia eta botoa emateko fitxa batzuk egongo dira.

Herritarrek bigarren fasera pasatu diren lan horietako bat aukeratuko dute.

Adierazitako bi modu horietako edozeinetan, udalerrian erroldatutako pertsonak bakarrik bozkatu ahal izango dute, baldin eta NANA edo baliokidea agertzen bada, betiere formularioan eskatuko diren baldintzen arabera.

HERRITARREN BOZKETAREN EMAITZA. Jasotako botoak zenbatu egingo dira eta kartel bakoitzak lortutako kopuruari dagokion proportzioan banatuko dira 50 puntuak. Ondoren, horretarako idatziko den aktan jasoko dira eta bertan azalduko dira obra edo lan bakoitzak lortu dituen puntuak.

PUNTU GUZTIAK BATZEA. Bi aktak eskura direnean, bigarren fasera pasatutako lanek lortu dituzten puntuak zenbatuko dituzte, eta irabazletzat aitortuko da puntu gehien lortu duena. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du.

14.- Loinatz jaietako antolatzaileek aurkeztutako karteekin erakusketa bat antolatu ahal izango dute jaien barruan. Horregatik saritu gabeko lanak, ekainaren 20tik zenbatzen hasita, hogeitaz eguneko epean jaso ahal izango dira lanak aurkeztutako leku berean. Aipatutako epea lanak jaso gabe igaroz gero, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Udalak, eta, ondorioz, inolako eskubide eta kalte-ordainik aitortu gabe, egoki irizten dion moduan bereganatuko ditu.

15.- Saritutako lanak Udalaren esku geldituko dira eta, argitaratzeko, ezagutarazteko eta abarretarako eskubide guztiak berak izango ditu.

16.- Udalak aurkeztutako lanak zainduko ditu baina lanen osotasunaren eta egoera onaren erantzukizunik ez du izango, batez ere euskarri gogorrean aurkeztu ez diren lanena.

17.- Lehiaketa oinarrietako ataletakoren bati buruz zalantza edo desadostasuna badago, antolatzaileak erabakitzen duena bete beharko da.

18.- Lehiaketara aurkezte soilak, Oinarriak goitik behera onartzea dakar.”

b) UDALEKU ITXIETAN PARTE HARTZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASAK.
2022ESEP0002

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

“Gaia: Udaleku itxietan parte hartzeko ordaindu beharreko tasak onartzea.

AURREKARIAK

Beasaingo haur eta gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera hobetzeko hizkuntza errefortzu zerbitzua jarri zuen martxan Udalak 2017an. Zerbitzuko erabiltzaileen beharrak aztertuta, opor garairako ere euskara erabiltzeko gune bat izatea helburua lortzeko aproposa litzatekeela ikusi zen.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak erantzun egin nahi dio errealitate horri eta udaleku itxiak antolatuko ditu 9 eta 13 urte bitarteko haurrentzat. Gehienez ere 50 plaza izango dira.

APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
7. artikulua.– Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.
2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratorzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamiza-tzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Horren ondorioz, Herritarrak Batzordeak Osoko bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehena.- Beasaingo Udalak antolatuko dituen udaleku itxietarako ondorengo tasak onartzea:

Seme-alaba 1: 150,00€

2 seme-alaba 255,00€

Familia ugariak:

Seme-alaba 1: 120,00€

Bi seme-alaba: 225,00€

Hiru seme-alaba: 300,00€

Bigarrena.- Tasa hauek indarrean jarraituko dute aldaketarik onartzen ez den bitartean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk aurten ere abstenitu egingo gara gai honen inguruan. Batzordean komentatu genuen ondo egongo litzatekeela aztertzea sarreraren arabera tasak eta hobari batzuk ezartzearena. Familia ugarien inguruan gure zalantza azaldu genuen. Uste dut konpromisoa hartu dela hurrengo urterako aztertzeko. Gure ustetan haur eta gazte guztiek parte hartu ahal izateko, laguntza espezifiko batzuk aurreikustea eskatuko genuke. Zalantza geratu zaigu gero onartuko diren gizarte izaerako laguntza horietan kabida izango duten edo ez, zeren eta esan da kasuaz kasu aztertu beharko litzatekeela. Ez dakigu eskaera guztiak onartuko diren zeren eta aurreikusitakoa ez da ikaragarria. Ez dakigu zein baldintza bete

beharko liratekeen herriko ume guztiak udalekuetan parte hartzeko, kontuan izan da hizkuntza errefortzuaz gain udalekuek izan dezaketen helburu soziala.”

Alkatea andrea (EAJ-PNV): “Izan udaleku itxiak edo izan beste hainbat behar, esan dugu oinarri horietan sartuko lirateke nolabaiteko egun hitzartuta dauden dirulaguntzetatik kanpo geratzen direnak. Ongizate sailetik beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu horiei bide emateko Udalak dirulaguntza hori onartuko du. Jarritako zenbatekoa 7.500,00 €koa da eta ikusiko dugu horrek zer ematen duen. Ez genuke arazorik izango kopuru hori berritzeko. Ikusi egin beharko da ume bati udalekuetara ez joateak zer kenduko lioken”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu).

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c) XXV. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKAREN OINARRIAK.
2022ESEP0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA: XXV. *Igartza Literatura sorkuntzako bekaren oinarriak onartzea eta deialdia egitea.*

AURREKARIAK:

1.1994 urtean sortu zuen Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, IGARTZA LITERATURASORKUNTZAKO BEKA idazle berrientzat. Horrela jasotzen da Beasaingo Udalak eta ELKAR argitaletxeak 1994ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean. Baina, CAF enpresarekin ez zen ezer sinatu.

2.LITERATUR BEKA honek 6.000,00 euroko diru-saria izan du hasieratik CAF enpresak jarriak. 2013ko otsailaren 20an, ordea, CAF enpresak idatzi bat aurkeztu zion Beasaingo alkateari urte horretatik aurrera bere diru ekarpena 6.000,00 eurokoa izan beharrean 4.000,00 eurokoa izango zela jakinarazteko.

3.Ondorioz, data horretatik aurrera saria osatzeko falta ziren 2.000,00 euroak Elkar argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ordaintzea erabaki zen.

4. Bestalde, epaimahaiak hala erabaki duenean, 3000,00 €ko akzesit saria ere eman da. Hori dela eta, Elkar argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ematea adostu zuten.

5. 2019ko irailaren 6an hitzarmena eguneratu zen eta hitzarmen horren helburua IGARTZA LITERATURA- SORKUNTZAKO BEKari dagokionez, ELKAR argitaletxearen, CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren eta udalaren arteko harremana eta elkarlana zehaztu eta finkatzea da. Udala sustatzailea izanik eta ELKAR eta CAF enpresa laguntzailea eta babeslea hurrenez hurren.

Ondorengo kontuan hartuta:

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: XXV. Igartza literatura sorkuntzako bekaren inguruko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasun azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

**“XXV. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA
IDAZLE BERRIENTZAT**

Lehena. Bekaren xedea

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXV. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA emateko oinarriak arautzen dira.

Bigarrena. Bekaren diru kopurua

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak 2019ko irailaren 6an sinatutako hitzarmenaren arabera, bekaren zenbatekoa 6.000,00 eurokoa da, eta hiru erakunde horiek egindako ekarpenetatik ateratzen da zenbateko hori, hau da:

- Beasaingo Udalak 1.000,00 €*
- CAF enpresak 4.000,00 €*
- Elkar argitaletxeak 1.000,00 €*

Hirugarrena. Ordainketa

Ordainketa modu honetan egingo da CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak diru ekarpena egin ondoren:

- .- 3.000,00€, irabazle izendatu bezain laster.*
- 3.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan, alde zurretik zerga eta gizarte segurantzaren betebeharrak eguneratuta egotearen agiriak aurkeztuta.*

Laugarrena. Oinarriak argitaratzea

Deialdi hau iragarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Beasaingo Udalaren webgunean eta eskualdeko zein lurraldeko komunikabideetan.

Bosgarrena. Aurkezteko epea eta lekua.

2022eko ekainaren 30a izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:

- .- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria bete(l. eranskina)*
- .- On-line, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.beasain.eus*

Seigarrena. Eskararekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Beka eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, liburuaren edukia (75 bat orrialde gutxienez), estiloa, etab.

b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.

c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia.

Zazpigarrena. Deialdian parte hartzeko baldintzak.

- a) 35 urte bete gabe izatea.
- b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.
- c) Aurreko edizioetako Igartza Beka sariaren titularra ez izatea.
- d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.
- e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.
- f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.

Zortzigarrena. Epaimahaiaren osaketa eta eginbeharrak.

Osaketa: Epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Oihane Amantegi, Irati Jimenez eta Garazi Kamio.

Egin beharreko lanak: jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien artean irabazlea zein den izendatu 2022ko irailaren 15a baino lehen.

Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

Bederatzigarrena. Proiektua saritzeko ekitaldia.

Epaimahaia irabazlea izendatu eta Beasaingo Udalari jakinarazi ondoren, Beasaingo Udalak Igartza Literatur beka emateko ekitaldia antolatuko du eta irabazleari gehienez ere urtebeteko epea emango dio idazlana amaituta entregatzeko. Entregatutako idazlanak epaimahaikoen oniritzia jaso beharko du. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldatetaren berri eta haien onespina jaso beharko du.

Hamargarrena. Beka itzultzea.

Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoen aldean nabarmen kaxkarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko du jasotako dirua.

Hamaikagarrena. Datuen babesa.

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, GAON argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.”

d) ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEB-GUNEA EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK. 2022EUAD0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

Gaia: Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jarzeko dirulaguntzen inguruko oinarriak.

AURREKARIAK:

- 1. 2008ko ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean argitaratu ziren Merkataritzako errotuluak, irudi korporatiboa eta web-gunea euskaraz osorik edo ele bietan/anitzetan jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarriak. Dirulaguntza horien helburua establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea izan zen.*
- 2. 2018.urtean dirulaguntza horietan aldaketa batzuk egin ziren, diru-kopurua hazita*

LEGERI APLIKAGARRIA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Merkataritzan hizkuntza paisaia euskalduntze aldera, eta gaztelaniaz dauden errotulu nagusia eta irudi korporatiboko elementuen kopurua jaiste aldera, Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Errotuluen kasuan, dirulaguntza kostuaren %50 izatea, gehienez ere 240 euro izatea.

Bigarrena: Irudi korporatiboen kasuan, testua euskara hutsez jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta dirulaguntza gehienez ere 180 eurokoa izatea.

Hirugarrena:

- a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 450 euro.*
- b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 360 euro.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andrea (Beasaingo EH Bildu): “Lehenengo urtean azaldu zitzaigun diagnosis egin behar zela. Batzordean komentatu genuen eta zerbait egin den arren jarraipena ez da modu sistematikoan egiten. Iruditzen zaigu paisaia linguistikoa asko hobetzea daukagula. Laguntzak ematen ondo, baina gero komertzioetan euskararen presentzia bermatzeko zerbait izan beharko genuke. Ez zitzaigun geratu oso garbi jarraipenarena eta horregatik abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ados. Lanketa bat egin da nahiz eta diagnosi zehatza ez izan. Helburuen artean badakigu horrelako lanketa batek jarraipena behar duela. Denok horretan begiak jarri beharko ditugu eta jarraipena egin hizkuntza paisaia hobetzeko."

Besterik ezean bozketa egin da eta aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

"BEASAINGO UDALERRIKO SALTOKIETAKO ETA JARDUERETAKO ERROTULUETAN, IRUDI KORPORATIBOETAN ETA WEB-ORRIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO OINARRIAK. 2022KO JARDUERA EKONOMIKOA

1. XEDEA

Deialdi honen xedea jarduera publizitzeko asmoz errotuluetan, irudi korporatiboan eta web orrietan (aurretiko ordainketarik gabe) euskara erabiltzen duten Beasaingo merkatariei eta jardueri 2022 urterako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 3.000 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.335.30.01.

Gehieneko zenbateko osoaz gain (3.000,00 €), aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, diru-laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute, aldez aurretik eskatuta, bere jarduera ekonomikoa Beasaingo udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, helburu sozial hori duten elkarteak, euskaltegiak.*
- b) Ikastetxe kontzertatuak, entitate publikoak, alderdi politikoak eta sindikatuak.*
- c) Industria-jarduera dutenek.*

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

a) *Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:*

-Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.

-Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldez aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea.

-Udal Ogasunarekin zorrik ez da izango.

-Egunean izango dira Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak

b) *Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:*

- Testua euskaraz bakarrik egotea.*
- Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.*

c) *Web-guneen kasuan:*

- *Beasainen helbide fiskala izatea.*
- *Web-gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, eta lehentasunez sarreran euskarazko hautapena egina egon behar du.*

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko aurreikusitako hasierako kreditua handitzeko aukera kontuan hartuta, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 8. artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Oinarriak argitaratzea eta eskaerak aurkezteko epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2022-10-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoa bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala) edo Udalaren erregistroan, l.eranskineko ereduaren arabera.

Aurkeztu beharreko agiriak: *Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:*

- *Kasu guztietan: 2022ko jarduera ekonomikoari dagokion gastuen jatorrizko faktura*
- *Errotuluen, web-guneen eta irudi korporatiboen kasuan:*

-Errotuluak:

a) *Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.*

-Irudi korporatiboa:

a) *Laginen bidez egiaztatuko da.*

-Web-orriak: *Web-gunearen helbidea.*

Dirulaguntzaren eskaera behar bezala beteta egon ezean, daturen bat falta bada edo eskatutako agiriren bat falta bada, eskatzaileari (bai pertsonari edo entitateari) 10 egun baliodunetan zuzentzeko eskatuko zaio, eta hori egin ezean, bere eskaera izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela adieraziko zaio.

Onuraduna jarduera horretarako beste laguntzaren bat jasotzeko zain edo jasota egonez gero, laguntza horren deskribapen zehatza egin beharko du, eta dirulaguntzen baturak inoiz ezingo du burututako gastuaren %100 baino gehiago izan.

8.DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Errotuluak:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 240 euro.

2. Irudi korporatiboa:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 180 euro. Dirulaguntza gehienez ere, 180 eurokoa izango da.

3. Web-orriak:

a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 450 euro.

b) Web-gunea euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 360 euro.

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kasu honetan, ez da bidezkoa diru-laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea.”

e) MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2022MEPO0002

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarriak.2022.urtea

Udalak merkataritza sektorea biziberritzeko oinarriak idatzi ditu. Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

Xede hau betetzearen Udalak hiru dirulaguntza lerro idatzi ditu:

1. Oraindik martxan dagoen eta eskualdatu nahi den negozioa alokatzeko edo erosteko dirulaguntzak. Berriz Enpresa.

Merkataritza-establezimendua edo negozioaren lokala hartu nahi duten sustatzaileek Eusko Jaurlaritzaren BERRIZ ENPRESA enpresa-jarraipenerako programan parte hartu beharko dute eta bertan zehaztutako baldintzak bete.

Behin BERRIZ ENPRESA programaren babespean transmisioa egiten denean, jarduera burutuko den espazioa alokatu edo erosi egin daiteke.

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio.

- *Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.*
- *Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.*

Establezimendua erosiz gero, dirulaguntza Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

2. *Hutsik dagoen lokala alokatzeko dirulaguntzak.*

- *Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.*
- *Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.*

3. *Hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak.*

Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

LEGERI APLIKAGARRIA:

2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

PROPOSAMENA:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdia egitea honela baldintzatuta egongo da: emango diren dirulaguntzen hiru ekitaldi ekonomikotan ordaintzeko behar diren kredituei behin betiko onartuta egon beharko dira.

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onar ditzala.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Komentatu azken urtean 17 eskaera izan ditugula eta horietatik 2 lokalak erosteko eta beste 15ak alokatzeko. Hemen ere eskaeren arabera ez genuke arazorik izango aurreikusitako kreditua dirulaguntzak emateko, handitzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Hemen esan establezimendu bat irekitzeko bideragarritasun plana egiten denean, lehenengo urtetan negozioek ez dutela onurarik ematen. Hori dela eta proposatzen dugu %50eko dirulaguntza hori 3 urteetara luzatzea. Gure ustetan laguntza hauek anbiziokoagoak izan behar lukete merkataritza biziberritzeko.”

Besterik ezean, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

**“MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.
2022 URTEA**

1.XEDEA

Oinarri hauen helburua merkataritza sektorea biziberritzea da, hutsik dauden lokalak martxan jartzeko laguntzak emanaz eta eskualdatzen denean negozioen jarraipena bultzatuz. Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal hutsi batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

2.FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 10.000 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako kontu-sail honetan: 1.0243.481.431.50.01

3.APLIKAZIO-EREMUA ETA DIRULAGUNTZA MOTAK

Beasainen merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia, edonon bizi direla ere.

Merkataritza aldetik indarra galdu duen inguruan merkataritza-jarduerak zabaltzera eta indartzera bideratuko dira oinarri hauetan araututako laguntzak.

Helburu horrekin, Beasaingo Udalak dagoeneko itxita dagoen lokala eskuratzeko edo alokatzeko edo oraindik irekita dauden baina ixteko asmoa duten enpresen transmisioan laguntzeko dirulaguntzak emango ditu.

Dirulaguntza hau jaso ahal izateko establezimenduaren kanpoko nahikz barruko, finko eta iraunkorrak diren errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz edo elebietara egingo dira.

Honetarako hiru dirulaguntza lerro ditu Udalak:

- A. Oraindik martxan dagoen negozioa eskualdatzeko dirulaguntzak.Berriz enpresa.
- B. Jarduera bat garatzeko dagoeneko hutsik dagoen lokal hutsa alokatzeko dirulaguntza.
- C. Jarduera bat garatzeko, dagoeneko hutsik dagoen lokal hutsa erosteko dirulaguntzak.

A. ORAINDIK MARTXAN DAGOEN ETA EROSI EDO ALOKATU NAHI DEN NEGOZIOA ESKUALDATZEKO. BERRIZ ENPRESA

Beasaingo enpesen transmisioak lagundu eta merkataritzako eremuak erakargarri eta atseginagoak egiteko Eusko Jaurlaritzak BERRIZ ENPRESA garatu du.

Berriz enpresa programa enpresen eskualdaketa bat eman eta Beasaingo negozio baten ardura hartu nahi duten pertsonen laguntza teknikoak emateko baldintzak arautzen dituen programa da.

Baldintzak:

- a. Lokalen kokapena eta ezar daitezkeen jarduerak.

Negozioak Beasaingo udalerriko merkataritza-eremuan kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsonen zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik udalerrira suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

- b. Martxan dagoen negozioa hartu nahi duten pertsona ekintzaileak.

Kasu honetan Merkataritza-establezimendua edo negozioaren lokala hartu nahi duten sustatzaileek Eusko Jaurlaritzaren BERRIZ-ENPRESA enpresa-jarraipenerako programan parte hartu beharko dute eta bertan zehaztutako baldintzak bete.

Titularrek onespena emanda, *BERRIZ ENPRESA* (Euko Jaurlaritzak sustatutako programa Merkataritza Bazkundearekin elkarlanean) programaren babesean negozioaren transmisioa gauzatu duten Beasaingo negozioek transmisioa egiteko laguntza teknikoa izango dute.

c. *Betebeharreko baldintzak.*

Negozio horrekin jarraitu nahi duten ekintzaileek egunean izan beharko dituzte Administrazio publikoekiko zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzakekikoak.

d. *Berriz Enpresa programan parte hartzea. Udalaren dirulaguntza.*

Behin *BERRIZ ENPRESA* programaren babespean transmisioa egiten denean, jarduera burutuko den espazioa alokatu edo erosi egin daiteke.

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere hurrengo ekitaldietako aurrekontuan hitzartutako kopuruak jasotzen badira.

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak etab.)

Establezimendua erosiz gero, dirulaguntza Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

B. HUTSIK DAGOEN LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK.

Baldintzak:

a. *Aplikazio-eremua eta dirulaguntza motak.*

Negozioa Beasainen egon behar da. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsonen zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik gunea suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

Dirulaguntza jasotzen duen titularrak nahitaez erabili beharko du lokala aurkeztutako proiekturako, eta ezin izango du lokala beste jarduera mota baterako erabili.

b. *Lokal huts baten ardura hartu nahi duten ekintzaileak.*

Bere jarduera ekonomikoa Beasaingo lokal hutsen batean bat hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridiko guztientzat izango da deialdia, interesatuaren bizilekua edozein dela ere.

c. *Aurkeztu beharreko dokumentuak*

Jarduera garatzeko lokal hutsak berreskuratzen dituzten ekintzaileek 6. artikuluan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

d) *Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak*

Udalak ondorengo balorazioen arabera esleituko ditu dirulaguntzak:

- Originaltasuna eta berrikuntza gehienez 10 puntu.
1. Kontuan hartuko da jarduera burutzen den gunean ezaugarri berdineko merkataritza-jarduerarik dagoen.
 2. Establezimenduak teknologia berrien eta alderdi berritzaileen alde egin duen apustua.
 3. Proiektuaren harremana, Beasaingo nortasunarekin eta bere kulturarekin. Udallerriari, Beasaingo azokei, merkataritza-sareari eta abarri egindako ekarpena.
- Sortutako lanpostuak, gehienez ere 10 puntu.
Proiektuan zenbat lanpostu sortu diren hartuko da kontuan. Sortuko den lanpostu bakoitzeko 2 puntu emango dira.

e. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena.

Dirulaguntzak eskuratzeko gutxienez hiru urteko iraupena izan behar du alokatze-kontratuak. Gehienez ere lehenengo hiru urteko alokairu gastuak lagunduko dira:

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta arindarraren gastuak etab.)

Udalaren deialdi bakoitzean onartutako dirulaguntza, gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena da.

Hurrengo bi urtetan dirulaguntza jaso ahal izateko, urtero azaroan eskabidea eta dokumentuak (proiektua izan ezik) aurkeztu beharko dira, eta urteroko zenbatekoa, berriz, goian adierazitakoa izango da.

C. HUTSIK DAGOEN LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, hutsik dagoen lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira, dirulaguntzaren zenbatekoa bakarrik aldatuko da.

a) Zenbatekoa

Dirulaguntza katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak azterzeaz eta ebaluatzeaz Dirulaguntza emateko, jarduerak udal lizentzia eta baimen egokiak dituela egiaztatuko da. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ordainduta, onuradunak baldintzak betetzen ez baditu, eskuratutako dirulaguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

5.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalarari jakinarazi beharko zaio.

6.ESKAERAK AURKEZTEA.

-Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2022-10-30ean amaituko da.

-Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoa bidez, ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala), edo Udalaren erregistroan, l. eranskineko ereduaren arabera.

-Aurkeztu beharreko agiriak:

- *Eskaera inprimakia behar bezala beteta.*
- *Pertsona fisikoak: NAren fotokopia.*
- *Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NA eta ordezkatzeko ahalmena duela ziurtatzen duen agiria..*
- *Zerga betebeharrak eta Gizarte segurantzarekikoak egunean dituela jasotzen duen erantzukizun adierazpena.*
- *Dirulaguntzen onuradun izateko debeku egoeretan ez egotearen erantzukizun adierazpena.*
- *Alokairuaren kontratuaren kopia edo salerosketaren eskritura publikoa dirulaguntza eskatzen den egunean erregistratutako erregistroaren informazioko ohar sinplearekin batera.*
- *Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren altaren kopia.*

. *Jarduera berria irekitzen denean, bideragarritasun plana edo proiektuaren azalpen txostena. Bertan puntu hauek jorratuko dira, besteak beste: burutuko den jarduera, merkaturak, bezeroak/hornitzaileak, helburuak eta alderdi berritzaileak.*

. *Berriz Enpresa programari atxiki bazaio, horren egiaztagiria.*

7. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

-Baldintzak aldatzen badira (lehenengo alokairu-kontratua eta gero erosketak), dirulaguntzaren berrikuspena egingo da.

-Emakidarako emandakoak betetzen ez badira, horiek itzultzeko prozedura hasiko da.

f) TICKETBAI” FAKTURAZIO SISTEMARAKO EUSKARAZKO SOFTWAREA EROSTEKO DIRU LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA. 2022MEPO0003

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: “TicketBAI” fakturazio sistamarako euskarazko softwarea erosteko diru laguntzen oinarriak eta deialdia

TicketBAI hiru Foru Aldundiek eta Jaurlaritzak batera abiatutako proiektua da, eta bere helburua lege eta teknika arloko betebeharrak batzuk ezartzea da. TBAI indarrean jartzen denetik aurrera, jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek erabili beharko baitute argitaratzen diren beharkizun teknikoak betetzen dituen fakturazio software bat.

Sistema berriak foro ogasunei ahalbideratuko diete zergadunen jarduera ekonomikoaren diru sarrerak kontrolatzea eta, bereziki, amaierako kontsumitzaileak bezero dituzten jarduerenak. Era berean, informazio hori zergadunei beren zerga obligazioak betetzen laguntzeko erabiliko da.

LEGERI APLIKAGARRIA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

2022tik aurrera merkatari, ostalari eta zerbitzuetaoek fakturazio sistema berri hau erabili beharko dute derrigorrez. Fakturaziorako software bai gaztelaniaz, bai euskaraz dagoela ikusita, Udalak orain arte merkataritzan egin duen euskararen erabilera areagotze aldeko apostuari jarraituz, garrantzitsua iruditu zaio bezeroari euskarazko faktura eman ahal izateko bertako merkatari eta ostalariak euskarazko softwarea instalatzea. Hori dela eta, Herritarrek batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: "TicketBAI aplikaziorako euskarazko software-a erosteko diru laguntza ematea merkatari, ostalari eta zerbitzuetaoek."

Bigarrena: Eskabide bakoitzak "TicketBAI" aplikaziorako euskarazko softwarearen kostuaren %30eko diru laguntza jasotzea, gehienez ere 250€."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Lehenengo urtean ere esan genuen ez genuela ulertzen bakarrik euskarazko softwarea jartzeko izatea, merkatariak suposatzen dien gastuak kontuan izanda. Batzordean galdetu genuen ea merkatariak formazioa eman zaien eta esan zitzagun pare bat saio egin direla baina nahiko teorikoa. Proposatu nahiko genuke, saioak egitea benetan laguntzeko sistema hau inplantatzen."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Goiekiren eskutik eman ziren formakuntza saio horiek, lehenengo beldurrak uxatze aldera. Behin aurrera pauso horiek emanda, beharrezko ikusten dute beste formatu batean ematea benetan aplikagarriak izan daitezkenak merkatariarentzat. Hori programatzen ari dira. Zerbaiten berri daukagunean, noski, helaraziko dizuegu jakiteko noiz izango diren formakuntza horiek. »

Besterik ezean bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin, ondorengo oinarriak onartu dira:

"TicketBAI" fakturazio sistemarako euskarazko softwarea erosteko diru laguntzen oinarriak eta deialdia. 2022.urtea

Diru laguntza honen helburua Merkataritza sektorea bultzatzea da. Bultzada horrek Udalaren izaerarekin (zerbitzuak euskaraz eskaintzea) lotura izatea sustatu nahi da. Horretarako sustatu nahi dena da erosketak tiketak euskaraz eman ahal izateko "TicketBAI" fakturazio aplikazioan softwarea hizkuntza horretan ezartzea.

Hori guztia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 17.25 artikulua Udalari emate dion eskumenaren arabera: "Toki-ekonomia-eta gizarte-garapena".

2. FINANTZIAZIOA

2022ko udal aurrekontuan 0243.471.335.30.02 Dirulaguntzak: "TicetBAI" euskarazko softwarea" kontu-sailean, 20.000 euroko kreditua aurreikusi da merkataritza, ostalari eta zerbitzu sektorekoentzat helburua honetarako: "Ticket Bai" fakturazio sisteman euskarazko softwarea jartzeko.

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu aldaketa onartu ondoren, diru laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ONURADUNAK

Diru laguntza jaso ahal izango du alde zuzenetik eskatuta, Beasainen jarduera ekonomiko garatzen duenak eta horren ondorioz helbide fiskala udalerrian duenak.

4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

*-Jarduera ekonomikoa Beasainen kokatuta egotea.
-Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eskaerak aurkeztu beharreko datan.
-Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.*

*-Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
Egiaztapen hau ofizioz egingo da administrazio horietan, salbu eta interesduna modu arrazoituari aurka agertzen bada.*

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Diru laguntzak 4. baldintzak betetzen dituztenei emango zaizkie diru laguntzak eta zenbatekoa 7. artikuluan adierazten dena izango da.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.

Ordainketa, Alkateak diru laguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako diru laguntzak osagarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin.

7. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Eskabide bakoitzak "TicketBAI" aplikazioa euskarazko softwarearen kostuaren %30eko diru laguntza jasoko du eta gehienez ere 250€.

Diruz lagunduko den gastua 2022ko ekitaldi ekonomikoan egindakoa izan beharko du.

8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Diru laguntza jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide orria sinatuta (1. eranskina)
- Pertsona juridikoen kasuan IFKren kopia eta pertsona fisikoen kasuan NAREN copia.
- JEZn alta emanda egotea.
- Softwarearen erosketako faktura.

9. OINARRIAK ARGITARATZEA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAO n argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Noiz: Eskabideak oinarriak GAO n argitaratzen diren hurrengo egunetik 2022ko abenduaren 1era arte.

-Moduak:

- Diru laguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta.
Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.
- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta.

10. ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertze ko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenb tzen bi kasuetan.”

g) LANKIDETZA-PROGRAMETARAKO 2022KO AURREKONTUKO DIRU-SARRERA ARRUNTEN % 1AREN BANAKETA. 2022LALE0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“

AURREKARIAK

I. Badira jadanik legealdi batzuk non Beasaingo Udalak lankidetza egitarau ezberdinei bere aurrekontuko diru-sarrera arruntetik %1a zuzentzen duela.

II.- 2014-12-18ko osoko bilkuraren erabakiaren arabera (2015-01-1ean indarrean jarria), honela banatu zen %1 hori:

%70	%30
70% EUSKAL FONDOA	15% Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak

	7% Garatze bidean dauden edo zoritarren bat jasan duten herialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa.
	8% Herriko gazte laguntzaileentzat beka

III.- Udalbatzak 2017-11-30ean hartutako erabakiaren arabera (2018-01-01ean indarrean jarria), honela egin zen banaketa:

%70	%30
45% EUSKAL FONDOA	15% Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.
25% GARABIDE ELKARTEA	7% Garatze bidean dauden edo zoritarren bat jasan duten herialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa.
	8% Herriko gazte laguntzaileentzat beka.

IV.- Kontuan hartuta azken sei urteetan herriko gazteentzako beka-programarako bakarrik bi eskaera aurkeztu direla, %1 hori (lankidetzeta-programak) honela banatzea proposatzen da:

%70	%30
45% EUSKAL FONDOA	23% Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak
25% GARABIDE ELKARTEA	7% Garatze bidean dauden edo zoritarren bat jasan duten herialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Garapenerako lankidetzeta alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

I.- Lankidetzarako diru-sarrerea arrunten %1eko banaketa onartzea, aurrekarien IV. atalean adierazitako moduan, hau da:

-% 70 garapen proiektuetarako erabiltzea (% 45 Euskal Fondoa eta %25 Garabide).

-Gainerako %30a:

- % 23, Garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzak.
- % 7 Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa

II.-Honako oinarriak onartzea:

-Garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzen oinarriak

-Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programaren oinarriak.

III.-Dagokion deialdia egitea, II. atalean aipatutako oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

h) GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIARRENTZAKO LAGUNTZEN OINARRIAK. 2022LALE0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, aipatutako oinarriak onartzeari buruzkoak.

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“

GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO LARRIALDIETARAKO EDO EKINTZA GIZATIARRENTZAKO LAGUNTZAK 2022

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerraren eskumen propio gisa aurreikusten du:

37) Garapenerako lankidetzeta alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Beasaingo udalaren helburua da garapen bidean dauden herrialdeetako edo desplazatu eta/edo errefuxiatuak bizi diren lurraldeetako biztanleei, hondamendi naturalen (lurrikarak, uholdeak, lehorteak, ekaitzak), giza jatorriko hondamendien (gerrak, gatazkak, borrokak) edo egiturazko krisien (haustura politiko, ekonomiko edo sozial larriak) biktimei berehala laguntzeko ekintzak sustatzea.

Helburua giza sufrimendua prebenitzea eta murriztea da, biktimek arrazagatik, erlijioagatik, sexuagatik, adinagatik, nazionalitateagatik edo kidesetasun politikoagatik diskriminatu gabe.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege dekretuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituan Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).

-Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (1. Helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.5 Dirulaguntza ildoak: Gizarte-lankidetzak eta garapenerako laguntzak).

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrezko daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertzeko ezkor guztiak.

2.- Aurrekontua

1 0220.481.230.20.01 kontusail espezifikoan 51.000 euroko kreditua kontsignatu zen, lankidetzak jardueretarako honela banatzeko:

a)39.100€ garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako.

b)11.900€ Garatze bidean edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarako.

Hala ere, lehenik eta behin harrera-programarako laguntzak ebatzea aurreikusten denez, erabiltzen ez den horientzat aurreikusitako kreditua (eskaerarik ez egoteagatik edo aurkeztutakoak ez onartzeagatik), garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzetarako aurreikusitako kredituan sartuko da.

3.- Erakunde onuradunak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundeek izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkari iraunkorra EAEan baldin badute.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkari iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkari iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

4.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

a) Eskareri dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

b) Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.

c) Dirulaguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoen gastu eta diru-sarreraren aurrekontua.

Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Proiektu bakoitzeko, gehienez, 15.000 €-ko diru-laguntza emango da, eta proiektua 2022. urtean hasi eta amaitu beharko da.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaiak, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

d) Erakunde eskatzailearen IFKren kopia.

e) Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

f) Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

g) Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

h) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

5.- Eskararak aurkezteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2022-06-30 arte.

Eskararak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

6.- Hautaketarako irizpideak.

Larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako dirulaguntzak norgehiagoka erregimenean emango dira, hau da: aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, ondoren adierazten diren balorazio-irizpideen arabera kreditua agortu arte.

Proiektuak zuzen baloratzearren, beraietan azaldutako oro egiaztatzen duten datu eta dokumentu guztiak aurkeztuko dira.

Gehienezko puntuazioa 70 puntukoa da.

Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.

Horren ondorioz erakunde eskatzailearen batek ezin badu eskatutako guztia jaso, ez da proiektua birformulatzea onartuko, eta proiektua osorik gauzatzeari dagozkion gastuak justifikatu beharko dira.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

a) Eremu geografikoa (10 puntu arte)

Ekintza gizatiarrentzat edo larrialditako proiektuen ekimenak lehenetsiko dira, giza garapenaren indizea kontuan hartuta (GGI: Nazio Batuen Garapenerako Programak sortutako hiru parametroz osaturiko gizarte-adierazle estatistikoa: bizitza luzea eta osasungarria, hezkuntza eta bizitza maila egokia).

- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 baino txikiagoa izatea edo herri indigenak ere egotea. (10 puntu)
- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 eta 0,599 bitartekoa izatea. (8 puntu)
- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,6 eta 0,699 bitartekoa izatea. (6 puntu)

b) Biztanle hartzaileak (10 puntu, arte)

Egindako jarduerak honako hurrenkera hau izan beharko dute kontuan, eta lehentasunez:

- Biztanleria kalteberena (haurrak, emakumeak eta/edo desgaitasuna duten pertsonak). (10 puntu)
- Errefuxiatuak eta desplazatuak (5 puntu)

c) Esku-hartzea (20 puntu, arte)

- Larrialdiak edo hondamendiak eragindako pertsonen kopurua (10 puntu arte)

-1.000 pertsona arte (2 puntu)

-5.000 pertsonara arte (4 puntu)

-10.000 pertsona arte (6 puntu)

-20.000 pertsona arte (8 puntu)

-20.000 pertsona baino gehiago kaltetuta (10 puntu)

- Laguntzaren onuradunen kopurua (10 puntu arte)

-500 pertsona arte (2 puntu)

-1.000 pertsona arte (4 puntu)

-2.000 pertsona arte (6 puntu)

-3.000 pertsona arte (8 puntu)

-3.000 pertsona baino gehiago (10 puntu)

d) Sektore-lehentasunak (10 puntu)

Oinarrizko gizarte-premiei erantzutea (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, oinarrizko azpiegitura eta elikagaien segurtasuna) (10 puntu)

e) Proiektuaren finantzaketa (10 puntu, arte)

- *Bakarrik Beasaingo Udalari diru-laguntza eskatu zaion proiektua (2 puntu)*
- *Bakarrik Beasaingo Udalari diru-laguntza eskatu zaion eta erakunde eskatzaile berak kofinantzatutako proiektua (5 puntu).*
- *Beasaingo Udalari diru-laguntza eskatu zaion proiektua eta beste erakunde publiko edo/eta pribatuekin batera kofinantzatutako proiektua (10 puntu).*

f) Beasainen sentsibilizazio-ekintzak jasotzen dituzten proiektuak (10 puntu, arte)

Aukerakoa izango da, eta antolaketa-, hedapen- eta gauzatze-gastuak erakunde eskatzailearen kontura izango dira.

Ekintzak, ebaluatzeko, honako hauek izan beharko ditu:

- *Erakundeak modu autonomoan garatu beharreko proposamen-jardueren zerrenda eta deskribapena.*

7.- *Proposamenak egin eta ebaztea*

Gizarte Ongizateko Azpiarloa arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa aztertzeaz. Horretarako, Balorazio Batzordeak txosten teknikoa egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkateari, hark ebatz dezan.

Honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

- Gizarte Ongizate Azpiarloko arduradun teknikoa.
- Gizarte Ongizateko Azpiarloko 2 teknikari.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

8.-*Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea*

Alkatetzak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileari, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

9.- *Ordaintzeko modua*

Dirulaguntzaren %100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

10.- *Dirulaguntzaren egiaztatzea*

Dirulaguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua aurkeztutako proiektu osoarena izango da.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) *Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren froga-agiria. Froga agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, proiektuaren izena eta proiektua aurrera eramango den herrialdearen izena azalduko dira.*

b) *Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz.*

c) *Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.*

d) Faktura originalak.

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoan erabilera justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (Emandako dirulaguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute) nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahiko justifikazioa dela ulertzen delako.

e) Lortutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitorpena.

f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

g) Hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, itzultzeko ordainketa-gutuna eta horien ondoriozko interesak.

11.- Egiaztatze epea

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, dirulaguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

13.- Errekurtsoak

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa auzi daitezke, hilabete epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daitezke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

i) GARATZE BIDEAN DAUDEN EDO ZORITXARREN JASAN DUTEN HERRIALDEETATIK DATOZEN HAURREN DENBORALDIRAKO HARRERA PROGRAMAREN OINARRIAK. 2022HAPR0001

Ezagutzera Herritarrak batzordeko proposamena aipatutako oinarriak onartzeari buruzkoa.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“

GARATZE BIDEAN DAUDEN EDO ZORITXARREN BAT JASAN DUTEN HERRIALDEETATIK DATOZEN HAURREN DENBORALDIRAKO HARRERA PROGRAMA 2022

ZIOEN ALAZPENA

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerraren eskumen propio gisa aurreikusten du:

37) Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Beasaingo udalaren helburua garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten (Natura-inguruneek nahiz gizakiaren esku-hartzeak eragindako hondamendiak) herrialdeetatik datozen adingabeei laguntza humanitaria ematea da.

Horren helburua da harreran hartutako adingabeei aukera ematea, bizi diren baldintza gogorretatik aldi baterako irteteko, laguntza medikoa eta elikadura-oreka izateko, harreran zehar loturak sortzeko eta truke soziokulturala garatzeko.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege deketuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituan Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).

-Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (1. Helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.5 Dirulaguntza ildoak: Gizarte-lankidetzak eta garapenerako laguntzak).

1.-Xedea.

Oinarri hauen xedea, garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurrak Beasaingo familietan edo EAEko elkarteetan bitartez Gipuzkoako egoitzetan, aterpetxeetan, udalekuetan e.a harreran hartzeko dirulaguntzak arautzea.

2.- Aurrekontua

1 0220.481.230.20.01 kontu-sail espezifikoan 51.000€ko kreditua kontsignatu da, lankidetzak jardueretarako, eta honela banatuko da:

a)39.100€ garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako bideratuko dira.

b)11.900€ Garatze bidean edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarako bideratuko dira.

Aldi batetarako harrera programarako laguntzak eman ondoren, aurreikusitako kreditua agortzen ez bada, geratzen den kopurua garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzetarako bideratuko da.

3.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Beasaingo Udalak honako gastuak ordaindu ahal izango ditu:

-Bidaiak, arropa, oinetakoak, farmazia gastuak, betaurrekoak, dentista gastuak e.a.

Adingabeen harrera Beasaingo familietan lehenetsiko da; beraz, helburu horrekin, behar den diru-kopurua gordeko da Beasaingo familia harreragileen artean banatzeko. Familietan hartzeagatik gehienez 1.500€ emango dira.

Beasaingo familia harreragileen aurkeztutako eta onartutako eskaeren ondorioz aurreikusitako kreditua agortzen ez bada, soberakina elkarteetan eskaeren iritsiera-ordenaren arabera banatuko da. 1.500€ harreran hartutako adingabe bakoitzeko, kreditua agortu arte.

4.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzak eskatzeko aukera izango dute:

-Familia-harrera kasuetan: Beasainen legezko eta benetako bizilekua duen edozein familiak.

-Gipuzkoako egoitza, aterpetxe, udaleku e.a.-harrera kasuetan: nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundeak izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkari itza iraunkorra EAEn baldin badu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkari itza iraunkorra EAEn dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkari itza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da kontabilitatea eramateaz, dokumentuak izapidetzeaz eta proiektua kudeatzeaz ere, bere EAEn bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...).

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

a)Eskarari dagokion inprimaki ofiziala, eskatzaileak sinatuta (familia-harrera kasuan) edo erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua. (Gipuzkoako egoitza, aterpetxe, udaleku e.a.-harrera kasuan).

b) Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru-sarreren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze-egutegiarekin batera. Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik zeharkako gastuentzat, gehienera %7a bideratu ahal izango da.

c) Eskatzailea Erakunde bat denean, erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

d) Sinatzailearen NA familia- harrera kasuetan eta erakunde kasuetan IFKaren kopia eta sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

e) Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

f) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztaillaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

6.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2022-04-30 arte.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

7.- Proposamenak egin eta ebaztea.

Gizarte Ongizateko Azpiarloa arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa aztertzeaz. Horretarako, Balorazio Batzordeak txosten teknikoa egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkateari, hark ebatz dezan.

Honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

-Gizarte Ongizate Azpiarloko arduradun teknikoa.

-Gizarte Ongizateko Azpiarloko 2 teknikari

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

8.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileari, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

9.- Ordaintzeko modua.

Dirulaguntzaren %100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da

10.- Diru-laguntza zuritzea.

Harrera-familiek eta Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz.

b) Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Faktura originalak.

d) Lortutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

e) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

f) Hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, itzultzeko ordainketa-gutuna eta horien ondoriozko interesak.

11.- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

13.- Errekurtsoak

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeo errekurtsua auzi daitezke, hilabete epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daitezke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

j) BEASAINGO UDALAREN GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK.2022BIBO0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

Gaia: Beasaingo udalaren gizarte izaerako laguntzen Oinarri arautzaileak .2022 urtea

AURRERAKINAK

1.- Udaleko gizarte-zerbitzuek badakite oinarrizko gastuei aurre egiteko nahiko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak daudela, gizarte-babeseko beste sistema batzuek edo eta laguntzak DBE, GLL, etb. estali ezin dituztenak.

2.- Gastu pertsonalei eta familiarrekoei aurre egiteko, Udalak laguntza ekonomikoak ematea erabaki du, bere jasotzaileen integrazio soziala eta autonomia errazteko, gizarteratzeko prozesuan laguntza emanez edo beren mendekotasun, gizarte-bazterketa edo babesgabetasun egoeratik eratorritako premien aldi baterako estaldura bermatuz. Horretarako, honako oinarri arautzaile hauek prestatu ditu.

3.- 1 0220.480.231.03.01 kontusail espezifikoan 7.500 euroko kreditua kontsignatu da gizarte izaerako laguntzetarako.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian bizi diren pertsona / familiei gizarte izaerako laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarren: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estas ayudas sociales nos parecen positivas, pero insuficientes.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Beste dirulaguntzak jasotzen ez diren kasuetan, finantzatzeko dirulaguntzak dira. Lehenengo aldia da eta 7.500,00 € aurreikusi dira eta ikusiko dugu diru kopuru hau aldatu behar den. Izan daitezke udalekuetarako edo beste behar batzuentzat: interneteko konexioa ez dutenak eta beharrezkoa jotzen dena etxeetan horrelako zerbitzua ematea etab.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk pandemia hasieratik laguntza mota hauek proposatu genituen bagenekiolako GLLak edo beste laguntza batzuk jasotzen ez dituzten herritarrak daudela. Beraz, pozten gara. Agian inziditu egin beharko litzateke informazioa ematerakoan jendeak ezagutu ditzan eta dirulaguntza ebazpenak ahalik eta denbora gutxian ematea ulertzen dugulako premiazko laguntzak direla

Bozketa eginda, aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

“

Beasaingo udalaren gizarte izaerako laguntzen oinarri arautzaileak .2022 urtea

1. Definizioa.

Gizarte izaerako laguntzak Udalak premia biziko gastu ohiko nahiz ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzenduta daude. Gastu horiek dira bizitza duina izateko ezinbestekoak direnak, alegia, osasuna, higiena, etxebizitza eta beste hainbat arloren inguruko gutxieneko parametroak betetzen dituen bizitza izateko funtsezkoak direnak.

Laguntza ekonomikoak bateraezinak dira helburu bera duten beste batzuekin, eta aldi baterako laguntzak dira; hau da:

- Bateraezinak dira helburu bera duten beste batzuekin: bateraezintasuna ezartzen da DSBE, GLL edo lehendik dauden beste laguntzekin, baldin eta ezin badu horietakoren bat eskatu horietarako ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

- Aldi baterakoak dira, espero delako behar egoera hori pasatzea aurreikusitako epea igarotakoan, edo behar hori laster estali ahal izatea beste prestazio ekonomiko batzuekin. Ildo horretan, laguntza hau puntuala izango da edo hilabete batzuetara soilik egongo da mugatua.

1. Helburua.

Helburua da laguntzea lortzen Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean definitutako helburuak, bereziki, hauek:

- a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.*
- b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.*
- c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.*
- d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.*

3. Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Gizarte izaerako laguntza hauek bideratuko dira aurrez definitutako gastuak estaltzera, betiere onuradunak ez badu baliabide ekonomiko nahikorik eta gastu horiek ezin badira diruz lagundu beste sistema batzuen bidez edo beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratuta.

Diruz lagundu ahal izango dira gastu hauek: --Etxebizitza bat eskuratzeko sarrera eta mantentzearen ingurukoak (fidantza, alogera).

-Gizarte segurantzaren sistemak diruz laguntzen ez duen eta medikuak agindu duen medikazioa

-Diruz laguntzen ez diren hezkuntza gastuak.

-Ohiko gastuak: elikadura, arropak eta norberaren higienarako produktuak.

-Garraio gastuak (osasun-, okupazio-formazio-, adikzioen errehabilitazio zentroetara, jatorrizko herrialdera edo/eta baliokideak.

-Zorpetze gastuak.

- Udaleko gizarte langileak egindako txostenean teknikoki lehen premiakotzat jotzen diren beste gastu batzuk

Laguntzaren zenbatekoa inola ere ez da izango bakarrik edo beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuen beste dirulaguntza edo laguntzekin batera onuradunak burutu behar duen jardueraren kostua baino gehiago.

4. Onuradunak.

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke, eskaera egin baino 3 hilabete lehenagotik Beasaingo udalerrian erroldatuta eta bizi diren pertsonak.

Salbuespen gisa, Beasainen gaua ematen duen/igarotzen duen eta egoera prekarioan dagoen pertsonak planteatzen dituen egoerak ere aztertu ahal izango dira.

5. Baliabide ekonomikorik ez izatea.

Laguntza ekonomiko hauen izaera dela eta, onuradunek, laguntzak eskuratu ahal izateko, baliabiderik gabeko egoeran egon behar dute. Egoera hori zehazteko, erreferentzia gisa erabiliko dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarri- laren 18ko 4/2011 dekretuko irizpide ekonomikoak, 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena eta Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko urtero ezartzen duen bizikidetzaren unitatearen tamainaren arabera urteko diru-sarreraren muga.

4. Aurrekontua

1 0220.480.231.03.01 aurrekontuko kontu sailean 7.500 euroko kreditua esleitu da gizarte izaerako laguntza hauek emateko.

Bideratutako kontu sailak eskari guztiei erantzuteko kreditu nahikorik ez badu, udalak handitu ahal izango du, baina hori eraginkorra izateko, kreditua eskuragarri dagoela adierazi beharko da, Diru-laguntzen Araudiko 58 art. ak adierazten duen modura.

5. Eskaera egiteko epea

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2022-12-16an amaituko da.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

8.Eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean, astelehentik ostiralera:

8:30-13:30

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa izango da:

- Eskaera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (1 eranskina)
- Eskatzailearen NA, AIZ edo pasaportearen fotokopia eta berarekin erroldatuta eta familia unitatea osatzen dutenena.
- Familia liburuaren kopia.
- Egoera zibilaren ziurtagiriaren fotokopia/izatezko bikoteen erregistro zibilaren ziurtagiria/bikote-harremanaren zinpeko aitorpena
- Banaketa, dibortzio edo ezkontza-deuseztasunaren kasuan, banaketa edo dibortzioaren guraso eta seme-alaben arteko harremanei buruzko epaia eta hitzarmen ekonomikoaren fotokopia, edo izapide horiek hasi izanaren egiaztagiria.
- Laguntzaren xede den gastuaren aurrekontua edo zorraren egiaztagiria
- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa 20 zenbakiekin).
- Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloari berariazko baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakundeetatik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko (D-3 eranskina).
- Jasotzen dituen diru-sarreraren agiria (Lanaren, pentsioen, prestazioen eta/edo laguntzak).
- LANBIDEk, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta/edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotzen dituen prestazioei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.

Udalak Dirulaguntzen Lege Orokorraren 34.5 artikulua (zerga betebeharreran Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotea) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko ditu datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

9. Tramitazioa eta ebazpena

Laguntza ekonomikoa tramitatzen hasten da gizarte langileak dena delako gastua baloratuta, ulertzen delako lehen premiako gastua dela.

Prestazioaren egokitasuna neurtuko da parametro hauen arabera:

- Gastuaren beharra eta urgentzia.
 - Bizikidetzaren unitateko baliabide ekonomikoak nahikoak ez izatea gastu horiei aurre egiteko.
 - Laguntza puntuala eraginkorra izatea planteatutako behar-egoera konpontzen laguntzeko.
 - Laguntza hauek ekitate-printzipioaren arabera ematea, baloratuta eskatzaileek beste balizko onuradun batzuen aldean duten egoera, laguntza hauetara bideratutako aurrekontua mugatua baita.
 - Onuradunak edo bere bizikidetzaren unitateko beste kide batek Udalarekin adostea Arreta Plan Indibidualizatua (API), erreferentziako gizarte-langileak baloratu beharko duena.
- Halaber, baztertu beharko da behar hori estaltzeko beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratzeko epean dagoela.

Gizarte langileak txostena egingo du (ebazpen-proposamena) zerk eragin duen beharra, emango den diru laguntzaren zenbatekoa, kontzeptua eta proposatzen diren ordainketen kopurua adieraziz.

Balorazio-txostenak Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizateko azpi arloko zinegotzi delegatuaren oniritzia izan beharko du; Alkateak emango du ebazpena gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio

10. Arau-haustea

Datuak ezkatutzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

11. Errekurtsioak

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabete epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

K) MENDEKOTASUNA EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ESTIMULAZIO/ERREHABILITAZIO PROGRAMAK EGITEKO LAGUNTZEN OINARRIAK. 2021BIBO0023

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Mendekotasuna edo desgaitasuna duten Beasaingo udalerriko pertsonentzako laguntzak emateko oinarriak, estimulazio/errehabilitazio programak egiteko. 2022

AURRERAKINAK

1.- Gipuzkoako Foru Aldundia arreta goiztiarreko zerbitzua ematen ari garapenean atzerapena edo zailtasunak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeentzat; familia askok estimulazio- edo errehabilitazio-zerbitzu pribatuekin jarraitzen dute, Aldundiak eskainitakoa amaitu ondoren, beren seme-alabek autonomia-maila handiagoa lor dezaten, eta hori gastu handia da familia-ekonomiarentzat.

2.-Aldundiak eskainitako prestazioa osatzeko, Udalak estimulazio/errehabilitazio programak egiteko diru-laguntzak ematea erabaki du, eta, horretarako, honako oinarri arautzaile hauek prestatu ditu.

3.- 0220.480.231.01.01 kontusail espezifikoa 7.200 euroko kreditua kontsignatu da estimulazio/errehabilitazio programak laguntzeko.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Mendekotasuna edo desgaitasuna duten Beasaingo udalerriko pertsonentzako estimulazio / errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko oinarriak onartzea

Bigarren: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“

Mendekotasuna edo desgaitasuna duten Beasaingo udalerriko pertsonak estimulazio/errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko oinarriak. 2022

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea Beasaingo udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten eta estimulazio- edo errehabilitazio-tratamendua behar duten pertsonen urteko gastuak arintzeko laguntzak arautzea da.

Laguntzak aurreko ekitaldiko errehabilitazio- edo estimulazio-tratamenduen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

Salbuespen gisa, tratamendua ordaindu aurretik laguntzak emango zaizkie hala eskatzen duten pertsonen, baldin eta udalaren gizarte-zerbitzuek balioesten badute haien egoera ekonomikoak ez duela tratamendua ordaintzeko aukerarik ematen.

Diru-laguntza horiek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako diru-laguntzekin.

Beste laguntza batzuekin batera ematen bada, eskatzaileak ordaindu beharreko kopurua hartuko da gastutzat, jasotako zenbatekoa kendu ondoren.
Edonola ere, ezingo da inolako gain finantzaketarik eman.

2. Aurrekontua

1 0220.480.231.01.01 aurrekontuko kontu sailean 7.200 euroko kreditua esleitu da estimulazio- edo errehabilitazio programak laguntzeko.

Bideratutako kontu sailak eskari guztiei erantzuteko kreditu nahikorik ez badu, udalak handitu ahal izango du, baina hori eraginkorra izateko, kreditua eskuragarri dagoela adierazi beharko da, Diru-laguntzen Araudiko 58 art. ak adierazten duen modura.

3. Onuradun izateko baldintzak.

1. Onuradunak Beasaingo udalerrian eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egon behar du .

2. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak errehabilitatzeko edo estimulatzeko programak ematen dituzten zentro edo instalazioetara joatea.

3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak 6 eta 25 urte bitartean izatea.

4. 2-3 graduko mendetasuna duen pertsona gisa baloratua edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona gisa baloratuta egotea.

5. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako diru-laguntzak lortzeko debeku-kausetako batean ere ez egotea.

Salbuespenez, 6 urtetik beherakoentzako eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako arreta goiztiarreko programan sartzeari ukatzen duen ebazpena badago eta laguntza horien onuradun izateko gainerako baldintzak betetzen badira.

4. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak eta horien zenbatekoa

1. Estimulazio-/errehabilitazio- tratamenduaren urteko gastuaren % 100a jasoko dute familia-unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko diru-sarreraren muga sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 1.700 €.

2. Estimulazio-/errehabilitazio-tratamenduaren urteko gastuaren % 80 jasoko dute, urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren muga gainditzen duten edo beren egoera ekonomikoa baloratzea nahi ez duten familia-unitateek. Gehieneko zenbatekoa: 1.000 €.

3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonaren gurasoak eta anai-arrebak hartuko dira familia-unitatezat. Pertsona independizatuak badago, familia-unitatea hark eta, hala badagokio, haren bikotekideak eta seme-alabek osatuko dute.

4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga, unitate familiarren neurriaren arabera:

- 1 pertsona: 13.666,66 €
- 2 pertsona: 17.551,98€
- 3 edo gehiago: 19.415,88€

5. Diru-sarreraren zenbaketa.

Eskaeraren aurreko ekitaldian familia-unitateak jasotako urteko diru-sarrera garbiak kontuan hartuko dira.

Hartuko dira kontuan:

- A) Lanaren, pentsioen, prestazioen eta/edo laguntzen ondorioz lortutako urteko diru-sarrera garbiak.
- B) Kapital higigarriaren etekin garbiak.

6. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean, astelehentik ostiralera:

8:30-13:30

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- a) Eskabide-orrria, behar bezala beteta eta sinatuta (1 eranskina).
- b) Eskatzailearen NAN edo AIZaren fotokopia eta berarekin errolatuta eta familia unitatea osatzen dutenena.
- c) Familia-liburuaren fotokopia.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun-ziurtagiria edo mendekotasun-ziurtagiria (udalari ziurtagiria lortzeko baimena ematen bazaio, ez da aurkeztu behar).
- e) Eskaeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko ordainketaren egiaztagiria.
- f) Egin beharreko tratamenduaren kostuaren urteko aurrekontua, tratamenduaren ordainketa justifikatu aurretik laguntza eskatzen den kasuetan, baldin eta udaleko gizarte-zerbitzuek balioesten badute haien egoera ekonomikoak ez duela tratamendua ordaintzeko aukerarik ematen.
- g) Kontu korrontearen zenbakia (IBANa 20 zenbakiekin).

Eskatzaileak bere familia-unitatearen egoera ekonomikoa baloratzea nahi badu, honako hauek ere aurkeztu behar ditu:

- h) Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloari berariazko baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakundeetatik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko (D-3 eranskina).
- i) Urtean jasotako diru-sarreraren agiria (Lanaren, pentsioen, prestazioen eta/edo laguntzak).
- j) LANBIDEK, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta/edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotako urteko prestaziei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.

Jasotako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldunditik edota Beasaingo Udaletik badatoz, udalak berak jasoko du informazioa.

Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo nahikoa ez dela, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

7. Eskaera egiteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2022-03-31n amaituko da.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

8. Azterketa eta ebazpena

Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

9. Udal zorraren konpentsazioa

Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

10. Arau-hausteak

Datuak ezkatutzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

11. Errekurtsoak

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabete epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.

I) URA ETA ZABOR UDAL TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2021BIBO0015

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Ura eta zabor udal tasen arloan laguntzak emateko oinarriak, 2022 urtea.

AURRERAKINAK

1.- Beasaingo Udala laguntzen udal-politika bat aplikatzen ari da, karga ekonomikoa murrizteko edo baliogabetzeko:

- Ohiko etxebizitzako uraren eta zaborraren udal-tasak ordainketa.

- Udal kiroldegia erabiltzeagatiko tarifak ordainketa.

Tasen arloko laguntzak emateko, aurreko ekitaldian egindako gastuak hartu dira kontuan, eta udal kiroldegia erabiltzeagatiko tarifen arloko laguntzak emateko, berriz, gastua egin den ekitaldia.

Aipatutako laguntzak 2016ko irailaren 7an GAOn argitaratutako udal-ordenantzan daude araututa.

2.- Laguntzak zehazteko, eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa sinplifikatzeko/errazteko eta lege-aldaketetara egokitzeko irizpideak bateratzea eta ezartzea komeni denez, beharrezkoa da dagoen ordenantza indargabetzea.

3.- 2022ko ekitaldirako, aurreko ekitaldiko gastuei dagozkien ur eta zabor tasen arloko laguntzak emateko oinarriak baino ez dira prestatu, eta ez udal kiroldegia erabiltzeagatiko tarifak, 2021ekoak jada ordaindu baitira.

4.- 0220.480.231.00.01 kontusail espezifikoa 56.000 euroko kreditua kontsignatu da ura eta zabor udal tasen arloan laguntzak emateko.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Ur eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatiko tarifen inguruko laguntzak emateko ordenantza indarrik gabe uztea.

Bigarren: Ura eta zabor udal tasen arloan laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Hirugarren: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

“

URA ETA ZABOR TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2022 URTEA

1.- Xedea

Oinarri hauen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomiko murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da, ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.

Laguntzak aurreko ekitaldiko tasen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

2. Aurrekontua

1 0220.480.231.00.01 aurrekontuko kontu sailean 56.000 euroko kreditua esleitu da ura eta zabor tasen arloan laguntzak emateko.

Bideratutako kontu sailak eskari guztiei erantzuteko kreditu nahikorik ez badu, udalak Zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango du, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradunak izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

-Beasaingo udalerrian eskaera egin baino 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egon eta eskaeran azaltzen den helbidean bizitzea.

- Eskatzailearen bizikidetzta-unitateak ez du gainditu behar 4. atalean ezarritako urteko diru-sarrereren muga .
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legearen 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako diru-laguntzak lortzeko debeku-kausetako batean ere ez egotea

4. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak eta horien zenbatekoa

1. Egindako gastuaren % 100a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarrereren mugan sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 400 €.

2. Egindako gastuaren % 80a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarrereren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa: 300 €.

3. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarrereren 1,5 eta 2 muga artean sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa: 200€

4. Etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak hartuko dira bizikidetzta-unitatetzat.

5. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra egin ahal izango da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarrereren muga, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengo da:

- 1 pertsona: 13.668,66 €
- 2 pertsona: 17.551,98€
- 3 edo gehiago: 19.415,88€

5. Diru-sarrereren zenbaketa

Eskatzaileak eta bere elkarbizitza unitateko kideak 2021. ekitaldi ekonomikoan izandako urteko diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.

Kontutan hartuko dira:

- a) Urtean lortutako diru-sarrera garbiak: laneko etekinak, pentsioak, prestazioak edota laguntzak.
- b) Ondasun higikorren etekin garbiak.

Elkarbizitza unitateak ondasun higiezinak (2. Etxebizitza edo lokalak) %100aren jabetzan baditu, ez ditu laguntza hauek jasoko. Ohizko etxebizitza ez da kontutan hartzen

Horretarako, eskatzaileak baimena eman beharko dio Udaleko Gizarte Ongizateko azpi arloari, Gipuzkoako Foru Ogasunetik eta Estatuko Ogasunetik zuzenean jaso ditzan laguntza hauen onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerak aurkeztuko dira:
Aurrez aurre

iGunean, astelehentik ostiralera:
8:30-13:30
Posta arruntaren bidez
Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

- a) Eskaera orria behar den moduan beteta eta sinatuta (I Eranskina)
- b) Eskatzailearen NA edo AIZaren fotokopia eta berarekin erroldatuta eta elkarbizitza unitatea osatzen dutenena.
- c) NANA edo AIZA ez duten eskatzaileek pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute, eta erroldatuta dauden eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen egoera ekonomikoa egiaztatu beharko dute.
- d) Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizateko azpi arloari behar diren datuak (laneko etekinak, pentsioak, prestazioak, laguntzak, ondasun higikorren etekinak eta ondasun higiezinak) Gipuzkoako Foru Ogasunetik eta Estatuko Ogasunetik zuzenean eskuratzeko berariazko baimena ematea, laguntza hauetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatuzeko (D-3 eranskina).
- e) Kontu korrontearen zenbakia (IBAN a 20 zenbakiekin).
- f) Zabor tasa ordaindu izanaren ordainagiria.
- g) Ur tasa ordaindua izan den ordainagiria; fakturazioa eraikinekoa denean, eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren agiria (3 eranskina).

Oinarri hauetan jasotako laguntzen eskatzailea Beasaingo Udalak aurreko ekitaldian emandako gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan bada, eskaera-orria eta laguntzaren xede diren tasak ordaindu izanaren egiaztatzea baina ez ditu aurkeztu beharko.

Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

8. Eskaera egiteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da irailaren 1etik 30era.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

9. Azterketa eta ebazpena

Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 3 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

10. Udal zorraren konpentsazioa

Laguntza hauen onuraduna Udal Ogasunetikiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

11. Arau-haustekak

Datuak ezkutatzeko edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.”

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- a) SASIETA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA. 2021IDBO0042

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

“

AURREKARIAK

1. 2021eko martxoaren 24an, Ezkio-Itsasoko Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 18an egindako ezohiko bilkuran aho batez hartutako erabakiaren ziurtagiria sartu da Sasieta Mankomunitateko erregistro orokorrean, Sasieta Mankomunitatearen estatutuak aldatzea eskatuz.

2. Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritzako Batzarrak, 2021eko apirilaren 27an egindako bileran, aho batez, onartu du, besteak beste, Sasieta Mankomunitatearen estatutuak aldatzeko Lehendakariaren proposamena onartzea.

Aldaketaren hasierako onarpenaren iragarkia argitaratu da Gipuzkoako Adizkari Ofizialean 2021eko maiatzaren 24an (95. zenbakiduna).

3. Udal guztiek aurkeztu dute estatutuen aldaketaren hasierako onarpena jendaurreko erakustaldian jarri izanaren ziurtagiria; ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du 2021eko azaroaren 16an. Txosten horrek adierazten du 2 zuzenketa egin behar direla:

1. Altzaga agertu behar du (Atzagaren ordeez)

2. 28 ordezkariaren aipamena jaso behar da (29ren ordeez)

5. Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak, 2021eko azaroaren 30eko ezohiko bileran, aho batez, onartu du Sasieta Mankomunitatearen estatutuen aldaketa.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena. Udalbatzak du eskumena, estatutuen aldaketa onartzeko eskumena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua eta b) eta p) atalek eta Sasieta Mankomunitateko estatutuen 35 d) artikulua. xedatutakoaren arabera.

Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikulua eta arabera

Araudia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 22, 44. eta 47. artikulua

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101.-103. Artikuluak

Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa: 7a-3 artikulua.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena: 1.-17. artikulua; 29. eta 30. artikulua, besteak beste.

Sasieta Mankomunitatearen estatutuak (Zuzendaritza Batzarrak 2018ko irailaren 24an behin betikoz onartutakoak eta 2019ko ekainaren 21ean (117.zenbakian) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak: 35. Artikulua.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena: 3.3 d)1 artikulua

Gaiaren azterketa

Auzitegi Gorenaren 1025/2020 epaiak, Ezkio-Itsaso udalerriko Itsaso herrigunea banandu eta udalerrri independente gisa eratzea onartu zuen abenduaren 20ko 27/2016 Foru Dekretua baliogabetzea eta baliorik eta ondoriorik gabe deklaratzeko agindu du.

*Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2020ko abenduaren 22ko bileran, Itsaso berriro integrazteko erabakia hartu du, epaia betearazteko; erabaki hori 2020ko abenduaren 31ko GAOn (250. zk.) eta 2021eko urtarrilaren 18ko EHAA (11. zk.) argitaratu da
Itsasoko batzorde kudeatzailea 2021eko otsailaren 15ean desegin da.*

GFAk aldeko txostena eman du.

Prozedura

*Estatutuen 35. artikulua honako hau xedatzen du:
«Estatutuen aldaketak prozedura hau beteko du:*

- a) Ekimena lehendakaritzari egokituko zaio edo, gutxienez, Zuzendaritza Batzarraren herenari.*
- b) Zuzendaritza Batzarrak onartzea, bertan dauden kideen boto haztatuen gehiengo soilez eta udalerrien gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez.*
- c) Erabakia hilabeteko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta udal mankomunatuaren iragarki-tauletan erakusgai jarriko da. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuen aldaketari buruzko txostena eman beharko du epe berean. Epe hori igaro eta Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena eman ez badu, aldekoa dela ulertuko da.*
- d) Udal mankomunatu guztiek onartzea, mankomunitatea eratzeko eskatutako gehiengoarekin hartutako Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez. Prozeduraren fase horretan, bozkatzen den testuan ezin izango da aldaketarik egin.*
- e) Estatutuen testu osoa, aldaketak eta guzti, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea».*

PROPOSAMENA

Lehenengoa. Sasieta Mankomunitatearen estatutuen aldaketa (1. eranskina) onartzea.

Bigarrena. Sasieta Mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

I. eranskina

JATORRIZKO TESTUA

1. artikulua. Mankomunitatea eratzea.

Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerriak elkartu egin dira eta borondatezko mankomunitatea eratu dute, elkarrekin obrak ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eta zerbitzuak egiteko, eta modu koordinatuan esku hartzeko 7. artikuluan adierazitako xedearen edo jarduera-esparruaren barruan jasotako garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderdietan.

IDAZKETA BERRIA

1. artikulua. Mankomunitatea eratzea.

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerriak elkartu egin dira eta borondatezko mankomunitatea eratu dute, elkarrekin obrak ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eta zerbitzuak egiteko, eta modu koordinatuan esku hartzeko 7. artikuluan adierazitako xedearen edo jarduera-esparruaren barruan jasotako garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderdietan

JATORRIZKO TESTUA: 16.3 ARTIKULUA

3.Batzorde Betearazlean lurralde-eremu hauetako ordezkari bana egongo da:

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio, Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Altzaga, Legorreta, Gaintza, Arama

IDAZKETA BERRIA: 16.3 ARTIKULUA

3.Batzorde Betearazlean lurralde-eremu hauetako ordezkari bana egongo da:

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Altzaga, Legorreta, Gaintza, Arama

JATORRIZKO TESTUA: LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

	Biztanleria EIN(2018)	Mankomunitateko ordezkaritza (%)/	Ordezkariei esleitutako botoak	Ordezkari kopurua/	Ordezkariei esleitutako botoak
Altzaga	170	0,245	0,2	1	0,2
Arama	211	0,304	0,3	1	0,3
Ataun	1.687	2,429	2,4	1	2,4
Beasain	13.854	19,947	19,9	2	10,0 9,9
Ezkio	420	0,605	0,6	1	0,6
Gabiria	494	0,711	0,7	1	0,7
Gaintza	127	0,183	0,2	1	0,2
Idiazabal	2.304	3,317	3,3	1	3,3
Itsaso	155	0,223	0,2	1	0,2
Itsasondo	642	0,924	0,9	1	0,9
Lazkao	5.559	8,004	8,0	2	4,0 4,0
Legazpi	8.438	12,149	12,1	2	6,1 6,0
Legorreta	1.433	2,063	2,1	1	2,1
Mutiloa	249	0,359	0,4	1	0,4
Olaberria	949	1,366	1,4	1	1,4
Ordizia	9.998	14,395	14,4	2	7,2 7,2
Ormaiztegi	1.314	1,892	1,9	1	1,9
Segura	1.455	2,095	2,1	1	2,1
Urretxu	6.786	9,770	9,8	2	4,9 4,9
Zaldibia	1.578	2,272	2,3	1	2,3
Zegama	1.535	2,210	2,2	1	2,2
Zerain	248	0,357	0,4	1	0,4
Zumarraga	9.848	14,179	14,2	2	7,1 7,1
Guztira/Total	69.454	100,0	100,0	29	100,0

IDAZKETA BERRIA: LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

	Biztanleria EIN(2018)	Mankomunitateko ordezkaritza (%)	Ordezkariei esleitutako botoak	Ordezkar kopurua	Ordezkariei esleitutako botoak	
Altzaga	170	0,245	0,2	1	0,2	
Arama	211	0,304	0,3	1	0,3	
Ataun	1.687	2,429	2,4	1	2,4	
Beasain	13.854	19,947	19,9	2	10,0	9,9
Ezkiio-Itsaso	575	0,828	0,8	1	0,8	
Gabiria	494	0,711	0,7	1	0,7	
Gaintza	127	0,183	0,2	1	0,2	
Idiazabal	2.304	3,317	3,3	1	3,3	
Itsasondo	642	0,924	0,9	1	0,9	
Lazkao	5.559	8,004	8,0	2	4,0	4,0
Legazpi	8.438	12,149	12,1	2	6,1	6,0
Legorreta	1.433	2,063	2,1	1	2,1	
Mutiloa	249	0,359	0,4	1	0,4	
Olaberria	949	1,366	1,4	1	1,4	
Ordizia	9.998	14,395	14,4	2	7,2	7,2
Ormaiztegi	1.314	1,892	1,9	1	1,9	
Segura	1.455	2,095	2,1	1	2,1	
Urretxu	6.786	9,770	9,8	2	4,9	4,9
Zaldibia	1.578	2,272	2,3	1	2,3	
Zegama	1.535	2,210	2,2	1	2,2	
Zerain	248	0,357	0,4	1	0,4	
Zumarraga	9.848	14,179	14,2	2	7,1	7,1
Guztira/Total	69.454	100,0	100,0	28	100,0	

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

b) MUGAKETA ETA MUGARRIAK AZTERTZEKO BATZORDERAKO KIDEEN IZENDAPENA.2017IDBO0003

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Beasain eta Ordizia udal barrutien arteko mugaketa zortzigarren mugarrinari dagokionean. Batzordeko kideek eguneratzea.

AURREKARIAK

I.- 2017-03-30. Udalbatza Osoak, ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. Beasain eta Ordizia udalerrien arteko mugarririk errekonozitzeko espedienteari hasiera ematea, falta direnak jarritz, kasu bada. Hori guztia, 1942an egindako mugaketaren arabera.

Bigarren. Horretarako ondorengo batzordea eratzea, jarraian aipatzen diren kideekin:

- Alkatea: Aitor Aldasoro Iturbe

- Bi zinegotzi: Leire Artola Ugalde

Xabier Matarranz Rico

- Udalaren Idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza

- Teknikoa: Agustín Pérez de Nanclares (aparejadorea).

II.- Ordiziako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari erabakiaren berri eman ondoren, bai batak eta bai besteak batzordea eratu zuten kideak izendatuta, eta mugaketa egiteko izapideak hasi baziren ere aukera ezberdinak aztertu baziren ere, prozedura etenda geratu zen, bi udalerrietako agintariek bilera egitearen baitan.

III.- 2021-11-29. Ordiziako Udalaren 2020-09-30eko Osoko Bilkuraren erabakia jaso dela adierazten da, batzordekideak berritzeari buruzkoa.

IV.- Beasaingo Udalak prozedurarekin jarraitu nahi du, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari baita une honetan eta kontuan izanda 2019an legealdi berri bati hasiera eman zitzaioa, beharrezkotzat jotzen da batzorde-kideen izendapena berritzea

OINARRI JURIDIKOAK

Gipuzkoako Udal Mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Araua. 17tik 23ra bitarteko artikulua.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Espediente honetarako: mugaketa eta mugarriak aztertzeke hala badagokio, Beasaingo eta Ordiziako udalerrien artean falta direnak birjartzeko, 1942an egindako mugaketa kontuan hartuta, batzorderako honako kide hauek izendatzea:

- Alkatea: Leire Artola Ugalde

- Bi zinegotzi:

1. Adur Ugartemendia Leunda
2. Edorta Diaz del Rio

- Udalaren Idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza

- Teknikoa: Jon Eskisabel del Bosque (aparejadorea).

Bigarren. Erabaki hau Ordiziako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, nahiz afektatutako lursailen jabeei jakinaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5.- BERRI EMATEA:

Ondorengo ebazpenen berri eman da:

- 2021eko azaroaren 29tik, 2022ko urtarrilaren 23arte emandako Ebazpenak.

- 2021eko azaroaren 29tik, 2022ko urtarrilaren 23arte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Alderdi sozialistako bozeramaileak galdetuta Alkatea andreak azaldu du kontratu txikien artean kirolegiko aipamena egiten diren bi kontratu ezberdin direla. Bata kirolegiko lizitazio berria egiteko legez beharrezkoa den “bideragarritasun azterlana egitea” kontratatzeari buruzkoa da eta bestea da INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATROK pandemia dela eta izan duen desorekari buruz aurkeztutako kontuak aztertzeko lana kontratatzea, jakin ahal izateko Udalak kontzeptu horretan zenbat zor dion.

Alderdi sozialistako bozeramaileak esan du beraientzat biak lotuta daudela.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ikusita denbora aurrera doala, jakin nahi dugu gai honen inguruan zerbait aurreratu den.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Estamos de lleno en ello. Por suerte EDUEL ha organizado una jornada sobre nuevos modelos de gestión, a la que nos hemos apuntado la Alcaldesa, la Jefa de Sección y yo. La idea es una reformulación total del servicio. Por otra parte sabemos que la empresa GOXARA se está reuniendo con las trabajadoras a través del PRECO y están en negociaciones. Nos hemos reunido con el sindicato ELA hace relativamente poco y con las trabajadoras de GOXARA, no tanto por sus reivindicaciones salariales y sociales, sino para conocer su opinión sobre hacia dónde debería dirigirse la ayuda a domicilio. También estamos pendientes de reunirnos con UGT o COMISIONES (no recuerdo quien tiene representación).

Tal y como está planteado hoy, es decir, con precio/hora, poca modificación se puede dar.

Beasaingo EH Bilduren bozeramaileak galdetu du zerbitzuaren erreformulazioa zertan oinarritzen den.

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Horrek aldaketa osoa suposatzen du, baina ez kudeaketa eredu aldetik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Etxez etxeko laguntza zerbitzu eskaintzeko eredua, hau da, ordutegiak, langile kopuruak etab. Kataluinako esperientziren baten berri izan dugu baina, Maluk dioen bezala aldaketa sakona da. Hori abiapuntua izan daiteke baina gero auskalo non geratzen garen. EUDELen formakuntza horretan parte hartuko dugu, beste adibide batzuk azaltzea delako helburua. Nire ustetan formakuntza hau antolatu dutela egun duguna ez delako balekoa.”

Beasaingo EH Bilduren bozeramaileak galdetu du kronogramarik dagoen, kontuan izanda azaroan amaitzen dela egun dugun kontratua.

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Zehaztuta ez dago”.

Alkate andreak (EAJ-PNV) esan du maiatzeko plenoan pasa beharko liratekeela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.